

Euskal AEko esportazioek % 11 egin dute gora 2022ko martxoan

2022ko lehen hiruhilekoko balantzea 7.400 milioi euro inguruko esportazioekin itxi da, 2021ean baino % 21,7 gehiagorekin

Euskal AEko ondasunen **esportazioek** (2.619,3 milioi euro), 2022ko martxoan eta aurreko urteko hil beraren aldean, % 11,0ko igoera nominala izan dute, Eustaten datuen arabera. Bolumen esportatzaile horren ondorioz, aurtengo martxoan serie historikoa izan da, eta 2021eko azaroa ere gainditu da; orduan, 2.600,4 milioi euro baino gehiago izan ziren. Esportazio ez-energetikoen % 4,4 egin zuten gora, eta energetikoen, % 131,1.

Inportazioen kasuan (2.238,3 milioi), % 31,0ko igoera egon da, produktu energetikoen % 95,3ko eta ez-energetikoen % 19,5eko igoeraren ondorioz. Merkataritza-fluxu horretan ere, martxoak serie historikoaren zifrarik altuena izan du, 2021eko azaroaren aurretik (2.163,8 milioi).

2022ko hirugarren hilak merkataritza-saldo positiboa izan du, 381 milioi euro ingurukoa, eta ia % 117,0ko estaldura-tasa ekarri du.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. Martxoa 2022

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Martxoa			Martxoa		
	2021	2022	Gehikuntza (%)	2021	2022	Gehikuntza (%)
EUSKAL AE						
HILABETEA, GUZTIRA	2.359.089	2.619.266	11,0	1.708.336	2.238.306	31,0
ENERGIAZKO GAIK	123.593	285.568	131,1	259.833	507.479	95,3
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIK	2.235.496	2.333.698	4,4	1.448.502	1.730.827	19,5
URTEKO METATUA	6.075.297	7.391.350	21,7	4.503.749	6.412.748	42,4
ENERGIAZKO GAIK	258.403	580.923	124,8	811.996	1.432.887	76,5
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIK	5.816.894	6.810.426	17,1	3.691.753	4.979.861	34,9
ARABA / ÁLAVA						
HILABETEA, GUZTIRA	689.078	699.087	1,5	446.852	478.434	7,1
URTEKO METATUA	1.864.871	2.174.467	16,6	1.085.326	1.422.333	31,1
BIZKAIA						
HILABETEA, GUZTIRA	934.312	1.111.423	19,0	869.852	1.254.880	44,3
URTEKO METATUA	2.382.507	3.047.267	27,9	2.369.404	3.621.666	52,9
GIPUZKOA						
HILABETEA, GUZTIRA	735.699	808.756	9,9	391.632	504.993	28,9
URTEKO METATUA	1.827.919	2.169.616	18,7	1.049.019	1.368.748	30,5

Data 2022ko Maiatzaren 17a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Euskal AEko hiru lurralde historikoek hazkuntza-tasa positiboak izan dituzte, eta igoera-ehunekoak % 1,5ekoa Araban, % 9,9koa Gipuzkoan eta % 19,0koa Bizkaian. Arabako esportazio ez-energetikoek % 1,4 egin dute gora; Gipuzkoakoek, % 9,9, eta Bizkaikoek, % 1,9. Esportazio energetikoek are gehiago egin dute aurrera Bizkaiaren kasuan, eta % 131,8ra iritsi dira.

Araban, esportazioak honako hauek kontzentratzen dira: “*Garraio-materiala*” (guztizkoaren % 47,6), baina produktu horretan % 14,7 egin dute atzera; “*Metalak eta haren manufakturak*” (urte arteko % 85,0eko igoera); “*Plastikoak, kautxua eta haien manufakturak*” (–% 8,3), eta “*Materiala, makinak eta aparatu elektrikoak*” (–% 1,1). Lau arantzel-sekzio horiek hil honetako garrantzitsuenak izan dira.

Gipuzkoan, gora egin dute “*Garraio-materialaren*” salmentek (% 12,3), bai eta “*Metal eta haien manufakturenek*” ere (% 36,4). Hala ere, Gipuzkoako rankingean, hirugarrenak, “*Materiala, makinak eta aparatu elektrikoak*”, % 9,3 egin du atzera.

Bizkaiaren kasuan, esportazio-igoera izan da “*Garraio-materiala*” (% 28,8), “*Materiala, makinak eta aparatu elektrikoak*” (% 4,5) eta, batik bat, “*Produktu mineral eta energetikoak*” (% 118,7) ataletan; “*Metalak eta haien manufakturak*” atalean, berriz, % 1,5 atzerakada izan da.

2022ko martxoan, bost herrialdek (Frantzia, Alemania, Italia, Erresuma Batua eta Portugal) eratu dute Euskal AEn bezero nagusien taldea; esportatutako guztizkoaren % 48,8 hartzen dute (1.277,7 milioi). Haietako lau EB27koak dira; entitate horrek % 63,5 hartzen du. Ehuneko hori % 68,8 izango zatekeen, lehengo E28an.

Frantziara eginiko esportazio kopurua % 20,2 hazi da, Portugalera eginikoa % 30,3, Italiakoa % 44,1 eta Herbeheretara eginikoa % 57,0, baina atzera egin dute Alemaniara bideratutakoek (–% 2,2), Erresuma Batura bideratutakoek (–% 19,6) eta Belgikara bideratutakoek (–% 20,1). Hil honetan, Estatu Batuei eginiko salmentek % 36,6 egin zuten behera, baina gora Txinakoek (% 26,6) eta, nabarmen, Singapurrera eginikoek –zehazki, 86,4 milioi euro fuelolioan– (% 1.987,5). Errusiara bideratutakoek % 53,5 egin dute behera.

Inportazioen erdia EB27tik etorri da (% 50,9). Europako herrialde garrantzitsuenen artean, Belgika nagusitzen da (% 99,8ko hazkuntza), bai eta Herbehereak (% 61,0), Portugal (% 35), Frantzia (% 23,9), Italia (% 18,8) eta Alemania (% 9,2) ere. Erresuma Batukoek, azkenik, % 3,7ko igoera izan dute. Munduko gainerako herrialdeei begiratuta, jatorria Txinan duten inportazioek ere gora egin dutela ikusten dugu (% 11,9), bai eta Brasilen (% 551,6), Estatu Batuetan (% 569,1) eta Norvegian (% 700,8) dutenek ere. Errusiaren kasuan, % 83,2ko atzerapena egon da; 2021eko martxoan 73,7 milioi izan ziren eta 2022ko hil berean, 12,3 milioi. Azken herrialde horietako inportazioak funtsean energetikoak izan dira, Txinatik eta Errusiatik datozenak izan ezik; Errusiatik, hil honetan, ez dugu horrelako produkturik inportatu.

2022ko martxoan merkaturatutako produktuak

Xehetasunak ikusteko, 2022ko martxoan ikusten da hamar **arantzel-partida** nagusiek esportazioen % 43,4 kontzentratu zutela; baterako balioa 1.134,7 milioi eurokoa izan zen.

Euskal AEko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Martxoa 2022

	2021	2022	2022 (%)	2022/2021 (%)
ESPORTAZIO GUZTIEN	2.359.089	2.619.266	100,0	11,0
Petrolioaren olio finduak	105.943	265.427	10,1	150,5
Automobilentzako zati eta osagarriak	155.055	189.975	7,3	22,5
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	247.351	172.460	6,6	-30,3
Kautxuzko pneumatiko berriak	109.300	110.016	4,2	0,7
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	114.795	88.690	3,4	-22,7
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	62.051	80.688	3,1	30,0
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	29.873	76.369	2,9	155,6
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	60.812	60.852	2,3	0,1
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	32.371	50.572	1,9	56,2
Burdina edo altzairuzko gainerako manufakturrak	32.074	39.647	1,5	23,6
Altzairu herdoilgaitzezko barra eta profilak	22.770	37.606	1,4	65,2
Erabilera tekniko industrialetarako koipeak eta olioak (animalia- edo landare-)	20.626	34.522	1,3	67,4
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	21.075	34.105	1,3	61,8
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	24.436	30.805	1,2	26,1
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetaarako	0	28.985	1,1	-
Aduana-tarifen berariaz jasota ez dauden merkantziak	18.737	28.167	1,1	50,3
Xafien bidez eraikitutako, barrak, profilak, tutuak eta fundicio-eta, burdinako edo altzairuko antzeko	16.690	25.168	1,0	50,8
Hariak, isolatutako eroale elektrikoko kableak eta zuntz optikoko kableak	20.433	21.153	0,8	3,5
Transmisio-ardatzak, kojineak, engranajeak, enbrageak...	16.962	21.089	0,8	24,3
Metal arruntzeko giltzarriak, sarraila, morroilo eta giltzak	18.843	20.877	0,8	10,8
Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	13.923	20.867	0,8	49,9
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	35.693	19.667	0,8	-44,9
Turboreaktoreak, turbopropulsatzaileak eta gainerako gas-turbina, bere piezak eta osagaiak barne	13.585	19.637	0,7	44,6
Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste manufaktura moldeatutako batzuk	16.584	18.945	0,7	14,2
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketaetarako euskarriak	18.850	18.885	0,7	0,2

(p)Behinbehineko datuak

Data 2022ko Maiatzaren 17a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Nabarmenezkoak dira honako hauen igoerak: *“Petrolioaren olio finduak”* (% 150,5 eta 159,5 milioi gehiago aurreko urteko hil berean baino); *“Automobilentzako zati eta osagarriak”* (% 22,5 eta 190 milioi esportatu); *“Hodi eta profil hutsak, soldadurarik gabeak, burdina edo altzairuzkoak”* (% 155,6 eta 76,4 milioi). Halaber, gora egin dute *“Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko profilek”* (% 30,0 eta 80,7 milioi), eutsi egin diote *“Kautxuzko pneumatiko berriei”* (% 0,7 eta 110 milioi); hala ere, atzera egin dute *“10 pertsona baino gutxiagoko turismoen”* esportazioek (–% 30,3 eta 172,5 milioi esportatu) eta *“Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilenek”* (–% 22,7 eta 88,7 milioi). Martxoan nabarmenezkoa da, halaber, berriz ere, *“Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetaarako”* atalaren esportazioaren goreneko unea (29 milioi).

Inportazioen kasuan, arantzel-partidetan, pisu espezifiko gehienekoak, *“Petrolioaren edo mineral bituminosoaren olio gordinak”* (guztizkoaren % 20,3), % 183,9ko hazkuntza izan du, 2021eko hil berean baino 293,4 milioi gehiago, 453,0 milioiko guztizko erosketetan, honela banatuta: 263,4 milioi Brasilekoak, 89,2 Angolakoak, 59,5 Estatu Batuetakoak eta 40,8 Norvegiakoak. Joera positibo hori arantzel-partida nagusi gehienek izan dute, eta haien artean nabarmentzen da *“Petrolio-gasa eta gainerako hidrokarbu gaseosoak”* partidaren hazkuntza (% 122,4 eta 36,0 milioi inportatu), ia guztia “gas naturala”, hil honetan Estatu Batuetakoa (35,8 milioi). Era berean, honako hauen igoera ere nabarmentzen da: *“Beroan laminatutako produktu lauak, aleatu gabeko burdinazkoak edo altzairuzkoak, 599 mm-tik gorako zabalerakoak”* (% 106,5 eta 70,2 milioi) eta *“Biodiesela eta haren nahasteak”*, 24,6 milioi inportaturekin, Belgikatik (14,5 milioi) eta Herbeheretatik (10,1 milioi).

ARABA. Esportazioak 2022ko martxoan

Arabako lurralde historikotik eginiko esportazioek % 1,5 egin dute gora, aurreko urtearekin alderatuta. Hamar partida nagusietatik –guztizkoaren % 69,9–, hazkuntza-tasa handiena *“Hodi eta profil hutsak, soldadurarik gabeak, burdina edo altzairuzkoak”* partidak izan du (% 353,6 eta 67,4 milioi), eta, ondoren, *“Automobilentzako zati eta osagarriak”* partidak (% 210,1 eta 57,3 milioi) eta *“Hodi eta profil hutsak, burdina edo altzairuzkoak”* partidak (% 71,1 eta 23,5 milioi). Behera gehien egin dutenak, berriz, honako hauek izan dira: *“10 pertsona baino gutxiagoko turismoak”* (–% 29,9 eta 171 milioi esportatu) eta *“Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak”* (–% 22,8 eta 88,3 milioi).

Arabako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Martxoa 2022

	2021	2022	2022 (%)	2022/2021 (%)
ESPORTAZIO GUZTIEN	689.078	699.087	100,0	1,5
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	243.865	170.969	24,5	-29,9
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	114.426	88.344	12,6	-22,8
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	14.851	67.363	9,6	353,6
Automobilentzako zati eta osagarriak	18.467	57.274	8,2	210,1
Kautxuzko pneumatiko berriak	41.083	35.696	5,1	-13,1
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	13.738	23.500	3,4	71,1
Ardoa, mahats freskoarena	18.378	14.935	2,1	-18,7
Metal arruntzeko ontzietarako tapoiak, tapak eta beste osagarri batzuk	7.698	12.083	1,7	57,0
Kobrezko zakarrak eta hondakinak	10.625	9.477	1,4	-10,8
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketarako euskarriak	4.958	8.827	1,3	78,0

(p)Behinbehineko datuak

Data 2022ko Maiatzaren 17a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

BIZKAIA. Esportazioak 2022ko martxoan

Bizkaian esportazioek % 19,0 egin dute gora, 10 partida nagusiek (guztizkoaren % 53,6) hazkuntza-tasa positiboak izan dituztelako. Haien artean honako hauek nabarmentzen dira: *“Petrolio finduaren olioak”* (% 151,5 egin dute gora eta iaz baino 159,0 milioi gehiago), *“Animalien edo landareen koipeak eta olioak, erabilera tekniko industrialetara bideratuak”* (% 67,4 eta 34,5 milioi esportatu), *“Barra eta profilak, altzairuzkoak”* (% 54,4 eta 31,5 milioi) eta *“Txapak eta zerrendak, aluminiozkoak, 0,2 mm-tik gorako lodiera dutenak”* (% 50,4 eta 38,9 milioi).

Bizkaiko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Martxoa 2022

	2021	2022	2022 (%)	2022/2021 (%)
ESPORTAZIO GUZTIEN	934.312	1.111.423	100,0	19,0
Petrolioaren olio finduak	104.901	263.859	23,7	151,5
Kautxuzko pneumatiko berriak	67.741	73.784	6,6	8,9
Automobilentzako zati eta osagarriak	66.537	70.166	6,3	5,5
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	25.886	38.936	3,5	50,4
Erabilerak tekniko industrialetarako koipeak eta olioak (animalia- edo landare-)	20.626	34.521	3,1	67,4
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	20.384	31.479	2,8	54,4
Aduana-tarifen berariaz jasota ez dauden merkantziak	17.284	26.334	2,4	52,4
Turborreaktoreak, turbopropulsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	13.407	19.402	1,7	44,7
Transformadore elektrikoak, bihurgailu estatikoak eta erreaktantzia-bobina	12.889	19.215	1,7	49,1
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zultzeko barra hutsak	13.576	17.783	1,6	31,0

(p)Behinbehineko datuak

Data 2022ko Maiatzaren 17a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

GIPUZKOA. Esportazioak 2022ko martxoan

Gipuzkoako esportazioek % 9,9 egin dute gora, eta joera positiboa nabarmentzen da honako hauetan, aurreko urteko hil beraren aldean: *Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetarako*, 29 milioi, 2021eko martxoan partida horren esportaziorik egon ez baitzen (baina 2020ko hil berean 83,6 milioi izan ziren eta, 2019an, 77,5 milioi); *“Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko profilak”* (% 30,3 eta 78,1 milioi esportatu), *“Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak”* (% 210,8 eta 12,8 milioi) eta *“Burdina edo altzairuzko gainerako manufakturak”* (% 72,3 eta 21,8 milioi).

Lurralde horretan 3 partidak izan dute joera negatiboa, lehen 10en rankingean, eta, haien artean, honako hau nabarmentzen da: *“Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak”*, % 50,1 egin baitute behera eta 16,7 milioi igorri.

Gipuzkoako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Martxoa 2022

	2021	2022	2022 (%)	2022/2021 (%)
ESPORTAZIO GUZTIEN	735.699	808.756	100,0	9,9
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	59.906	78.067	9,7	30,3
Automobilentzako zati eta osagarriak	70.051	62.535	7,7	-10,7
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	38.807	42.677	5,3	10,0
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetarako	0	28.985	3,6	-
Burdina edo altzairuzko gainerako manufakturak	12.621	21.752	2,7	72,3
Hariak, isolatutako eroale elektrikoak kableak eta zuntz optikoko kableak	19.584	20.228	2,5	3,3
Metal arruntzeko giltzarrapo, sarraila, morroilo eta giltzak	17.618	19.673	2,4	11,7
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	33.393	16.652	2,1	-50,1
Makina erremintetarako parteak eta osagarriak	14.801	13.643	1,7	-7,8
Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak	4.126	12.825	1,6	210,8

(p)Behinbehineko datuak

Data 2022ko Maiatzaren 17a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

2022KO LEHEN HIRUHILEKOA: Kanpoko saldoak 978,6 milioi euroko superabita izan du, eta estaldura-tasa % 115,3koa da

2022ko lehen hiru hilotan, Euskal AEko **esportazioek** % 21,7ko igoera izan dute, aurreko urteko aldi beraren aldean; alegia, 1.316 milioi euro gehiago. Aldi horretan zenbateko esportatzailea 7.391,4 milioikoa da, eta kopuru horri Bizkaiak egiten dio ekarpenik handiena, 3.047,3 milioikoa (guztizkoaren % 41,2), gero Arabak (2.174,5 milioi) eta, ondoren, Gipuzkoak (2.169,6 milioi).

Bizkaiko esportazioek, gainera, urte arteko hazkuntza handiena izan dute, 664,8 milioi gehiago 2021ean baino, eta % 27,9ko hazkuntza erlatiboa. Araban, igoera % 16,6koa da (309,6 milioi gehiago) eta, Gipuzkoan, % 18,7koa (341,7 milioi). Esportatutako produktu mota kontuan hartuta, egiaztatu da esportazioek hazkuntzak izan dituztela, bai “Produktu energetikoenek” (322,5 milioi gehiago), bai “Produktu ez-energetikoenek” (993,5 milioi gehiago 2021eko hil bereko metatua baino).


2022ko lehen hiruhilekoan gehien saldu diren hamar produktuek (muga-zergen partidak) guztizkoaren % 42,3 kontzentratzen dute, 3.116,2 milioiko zenbatekoarekin. Haietako batek baino ez du egin pixka bat atzera, 2021eko aldi beraren aldean: *“10 pertsona baino gutxiagoko turismoak”* partidak; % 13,6 behera egin badu ere, jarraitzen du Euskal AEn esportazio-bolumen handiena duen partida izaten. Gehien hazi diren produktuen artean honako hauek nabarmentzen dira: *“Petrolioaren olio finduak”* (% 139,8 eta 311 milioi euro gehiago 2021ean baino, eta ehuneko hori murriztu egiten da % 46,8ra, euroak kontuan hartu beharrean esportatutako tonak kontuan hartzen badira), eta *“Animalien edo landareen koipeak eta olioak, erabilera tekniko industrialetara bideratuak”* (% 109,0 eta 57,3 milioi euro gehiago). Zerrendako gainerako produktuetan, aurrerapenak % 5,4 (21,8 milioi euro gehiago) eta % 92,4 (69,9 milioi euro gehiago) bitartekoak dira, *“Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak”* eta *“Hodi eta profil hutsak, burdina edo altzairuzkoak”* partidetakoa, hurrenez hurren. Honako igoera hauek ere badira kontuan hartzekoak: *“Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko profilak”*, *“Txapak eta zerrendak, aluminiozkoak, 0,2 mm-tik gorako lodiera dutenak”* eta *“Automobilentzako zati eta osagarriak”*, % 46,2ko, % 57,9ko eta % 25,9ko aldakuntza positiboak izan baitituzte, hurrenez hurren.

2022ko hiru hilotako ranking esportatzailean, Frantzia da herrialde hartzaile nagusia, guztizkoaren % 16,1en hartzailea. Frantziaren ondoren, Alemania (% 16,0), Estatu Batuak (% 6,3), Herbehereak (% 6,1) eta Italia (% 6,0) daude, eta, hala, bost herrialdeek esportazioen % 50,5 hartzen dute.

Euskal AErako **inportazioen** metatua, 2022ko lehen hiruhilekoan, 6.412,7 milioi euro ingurukoa da. Zifra hori urte artean erkatuz gero, 2021eko aldi berean erregistratutakoa baino 1.909 milioi handiagoa dela ikusten dugu. % 42,4ko gorakada hori izan da, zati handi batean, Bizkaiko lurraldean (3.621,7 milioiko balioa duten inportazioak ditu) % 52,9ko gorakada egon delako, alegia, aurreko urteko aldi berean baino 1.252,3 milioi gehiago. Araban ere inportazioek aurrera egin dute, % 31,1 termino erlatiboetan, 337 milioi euro gehiago salduta, eta, Gipuzkoan, % 30,5eko igoera izan dute eta 319,7 milioi euro gehiago; inportatutakoaren balioa 1.422,3 eta 1.368,7 milioi euro izanda, hurrenez hurren, bi lurralde horietan. “Produktu energetikoen” inportazioak % 76,5 egin du gora, aurreko urteko aldi beraren aldean, eta “Produktu ez-energetikoenak”, % 34,9.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzak, 2022ko lehen hiru hiletan, 978,6 milioi euroko saldo positiboa izan du, eta aldeko estaldura-tasari eustea dakar, % 115,3koa.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62